# I ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

*Foru Aginduak*

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**5.880**

**433/2004 FORU AGINDUA, irailaren 14koa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuarena. Honen bidez, 034 eredua onartzen da. Eredu horrek Esportatzaileen eta bestelako Eragile Ekonomikoen Erregistroa, eta Erkidego barruko Eragileen Erregistroa biltzen ditu.**

Irailaren 8ko Diputatuen Kontseiluaren 54/2004 Foru Dekretuak arautzen du Erkidego barruko Eragileen Erregistroa. Erkidego barruan Balio Erantsiaren gaineko Zerga aplikatzen zaien ondasunak eman edo eskuratu nahi dituzten pertsona eta erakundea guztiak daude erregistro horretan.

Zehatzago esanda, lehen aipatutako foru dekretuaren 2. artikuluak ezartzen du Erkidego barruko Eragileen Erregistroan parte hartuko dutenek alta emateko eskabidea aurkeztuko dutela erregistroan. Bertan jasotako datuak Eskabidearen eredua onartzen duen foru aginduan adierazten direnak izango dira.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa ikusten dugu 034 eredua, hau da, gaur egun indarrean dagoen Esportatzaileen eta bestelako Eragile Ekonomikoen Erregistroa aldatzea, bertan Erkidego barruko Eragileen Erregistroko alten eta bajen eskabidea sartzeko.

Horren ondorioz, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, ondokoa

XEDATU DUT:

Lehenengo.- Esportatzaileen eta bestelako Eragile Ekonomikoen Erregistroa eta Erkidego barruko Eragileen Erregistroa biltzen dituen 034 eredua onartzea.

Esportatzaileen eta bestelako Eragile Ekonomikoen Erregistroa eta Erkidego barruko Eragileen Erregistroa biltzen dituen 034 eredua onartzea. Ereduak bi ale ditu: bat, administrazioarentzat; bestea, interesdunarentzat.

Bigarren.- 034 eredua nola erabili.

Esportatzaileen eta bestelako Eragile Ekonomikoen Erregistroan sartu nahi duten subjektu pasiboek erabiliko dute 034 eredua, baldin eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Arautegiko 30. artikuluan araututa dagoen itzulketarako eskubidea badute.

Era berean, 034 eredua Erkidego barruko Eragileen Erregistroan sartzeko erabiliko da. Honako hauek osatuko dute erregistroa:

a) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako araututa dagoen Identifikazio Fiskaleko Zenbakia daukaten pertsona eta entitateak, eta Erkidego barruan zerga horren pean dauden ondasunak eman edo eskuratzen dituztenak.

b) Ondasun prestazioen hartzaileak izango diren Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasiboak, baldin eta horien gauzatze-lekua, zerga honen ondorioetarako, eskuratzaileak eragiketa egitean erabili duen Identifikazio Fiskaleko Zenbakia esleitu dion Estatua zein den kontuan hartuz zehazten bada.

c) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 14. artikuluan aipatzen diren pertsona eta entitateak, zerga horren pean dauden erkidego barruko ondasun eskuraketak egin behar dituztenean.

Azkenik, 034 eredua honako kasu hauetan erabiliko da: Esportatzaileen eta bestelako Eragileen Erregistroan eta Erkidego barruko Eragileen Erregistroan baja emateko. Eskabidea erregistro horietan alta zein baja emateko bada, altaren edo bajaren data zehatza jarri beharko da bertan.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA.

Foru agindu hau indarrean jartzen denetik aurrera, indargabetu egingo dira bertan xedatutakoaren aurkako maila berdineko edo apalagoko xedapen guztiak, eta, bereziki, abenduaren 26ko 2.089/1994 Foru Agindua eta urriaren 18ko 673/2001 Foru Agindua, 034 ereduari dagokionez.

AZKEN XEDAPENA.

Foru Agindu hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko irailaren 14a.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## Disposiciones y Resoluciones Administrativas

*Órdenes Forales*

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**5.880**

**ORDEN FORAL 433/2004, del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, de 14 de septiembre, por la que se aprueba el modelo 034 de Registro de Exportadores y otros Operadores Económicos y Registro de Operadores Intracomunitarios.**

El Decreto Foral 54/2004, del Consejo de Diputados de 8 de septiembre, regula el Registro de Operadores Intracomunitarios que está formado básicamente por todas aquellas personas o entidades que vayan a efectuar entregas o adquisiciones intracomunitarias de bienes sujetas al Impuesto sobre el Valor Añadido.

En concreto, el artículo 2 del mencionado Decreto Foral establece que quienes vayan a formar parte del Registro de Operadores Intracomunitarios deberán presentar una solicitud de alta en el mismo, con los datos contenidos en la Orden Foral que apruebe el modelo correspondiente.

Por ello, se hace necesario modificar el modelo 034 de Registro de Exportadores y otros Operadores Económicos actualmente vigente, al objeto de incluir en el mismo la solicitud de alta y de baja en el Registro de Operadores Intracomunitarios.

En su virtud, y en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Aprobación del modelo 034 de Registro de Exportadores y otros Operadores Económicos y Registro de Operadores Intracomunitarios.

Se aprueba el modelo 034 de Registro de Exportadores y otros Operadores Económicos y Registro de Operadores Intracomunitarios que consta de dos ejemplares: uno para la Administración y otro para el interesado.

Segundo.- Utilización del modelo 034.

El modelo 034 se utilizará para solicitar la inscripción en el Registro de Exportadores y otros Operadores Económicos, por los sujetos pasivos que tengan derecho al procedimiento de devolución regulado en el artículo 30 del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido.

Asimismo, el modelo 034 se utilizará para solicitar la inclusión en el Registro de Operadores Intracomunitarios. Este registro estará formado por:

a) Las personas o entidades que tengan atribuido el Número de Identificación Fiscal regulado a efectos del Impuesto sobre el Valor Añadido y vayan a efectuar entregas o adquisiciones intracomunitarias de bienes sujetas a dicho tributo.

b) Los sujetos pasivos del Impuesto sobre el Valor Añadido que vayan a ser destinatarios de prestaciones de servicios, cuyo lugar de realización a efectos del mismo se determine efectivamente en función de cuál sea el Estado que haya atribuido al adquirente el Número de Identificación Fiscal con el que haya realizado la operación.

c) Las personas o entidades a que se refiere el artículo 14 de la Norma del Impuesto sobre el Valor Añadido, cuando vayan a realizar adquisiciones intracomunitarias de bienes sujetas a dicho Impuesto.

Por último, el modelo 034 también se utilizará para solicitar la baja en el Registro de Exportadores y otros Operadores Económicos y en el Registro de Operadores Intracomunitarios. Tanto si la solicitud se refiere al alta como a la baja en los citados registros deberá hacerse constar la fecha efectiva de dicha alta o baja.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA ÚNICA.

Desde la entrada en vigor de la presente Orden Foral quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo dispuesto en la misma y, en particular, la Orden Foral 2.089/1994, de 26 de diciembre, y la Orden Foral 673/2001, de 18 de octubre, en lo relativo a la aprobación del modelo 034.

DISPOSICIÓN FINAL.

La presente Orden Foral entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Vitoria-Gasteiz, a 14 de septiembre de 2004.– El Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Alava

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila
Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos

# BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA

ESPORTATZAILEEN ETA BESTELAKO ERAGILE EKONOMIKOEN ERREGISTROA ETA ERKIDEGO BARRUKO ERAGILEEN ERREGISTROA

# *IMPUESTO SOBRE EL VALOR AÑADIDO*

*REGISTRO DE EXPORTADORES Y OTROS OPERADORES ECONOMICOS Y REGISTRO DE OPERADORES INTRACOMUNITARIOS*

034

IDENTIFIKAZIOA / *IDENTIFICACION*

IDENTIFIKAZIO ETIKETA IPINTZEKO LEKUA
*ESPACIO RESERVADO PARA LA ETIQUETA IDENTIFICATIVA*

ESPORTATZAILEEN ETA BESTELAKO ERAGILE EKONOMIKOEN ERREGISTROA / *REGISTRO DE EXPORTADORES Y OTROS OPERADORES ECONÓMICOS*

## AITORTZEN DU / *DECLARA:*

**HONAKO HAUEN ZENBATEKO OSOA / *QUE EL VOLUMEN TOTAL DE:***

- ERKIDEGOAREN BARRUKO EMATEAK
  *ENTREGAS INTRACOMUNITARIAS* ........ 01 [ ]
- ESPORTAZIOAK ETA KIDEKO ERAGIKETAK
  *EXPORTACIONES Y OPERACIONES ASIMILADAS* ........ 02 [ ]
- ITZULKETA- ESKUBIDEA SORTZEN DUTEN ERAGIKETA ZERGAPETUAK
  *OPERACIONES SUJETAS QUE ORIGINAN DERECHO A DEVOLUCION* ........ 03 [ ]
- ITZULKETA-ESKUBIDEA SORTZEN DUTEN ERAGIKETA ZERGAPETU GABEAK EDO SUBJEKTU PASIBOAREN INBERTSIOA DUTENAK
  *OPERACIONES NO SUJETAS O CON INVERSIÓN DEL SUJETO PASIVO QUE ORIGINAN EL DERECHO A DEVOLUCIÓN* ........ 04 [ ]

- AURREKO EKITALDIAN HAU IZAN ZELA
  *DURANTE EL EJERCICIO ANTERIOR ASCENDIÓ A* ........ 05 [ ] €
- HASITAKO URTE NATURALEAN HAU DELA
  *DURANTE EL AÑO NATURAL EN CURSO ASCIENDE A* ........ 06 [ ] €

## ESKATZEN DU / *SOLICITA:*

- ESPORTATZAILEEN ETA BESTELAKO ERAGILE EKONOMIKOEN ERREGISTROAN SARTZEA
  *EL ALTA EN EL REGISTRO DE EXPORTADORES Y OTROS OPERADORES ECONÓMICOS* ........ 07 [ ] *a fecha* ___ / ___ / ___ (e) an.
- ESPORTATZAILEEN ETA BESTELAKO ERAGILE EKONOMIKOEN ERREGISTROTIK KENTZEA
  *LA BAJA EN EL REGISTRO DE EXPORTADORES Y OTROS OPERADORES ECONOMICOS* ........ 08 [ ] *a fecha* ___ / ___ / ___ (e) an.

ERKIDEGO BARRUKO ERAGILEEN ERREGISTROA / *REGISTRO DE OPERADORES INTRACOMUNITARIOS*

## ESKATZEN DU / *SOLICITA:*

- ERKIDEGO BARRUKO ERAGILEEN ERREGISTROAN SARTZEA
  *EL ALTA EN EL REGISTRO DE OPERADORES INTRACOMUNITARIOS* ........ 09 [ ] *a fecha* ___ / ___ / ___ (e) an.
- ERKIDEGO BARRUKO ERAGILEEN ERREGISTROAN KENTZEA
  *LA BAJA EN EL REGISTRO DE OPERADORES INTRACOMUNITARIOS* ........ 10 [ ] *a fecha* ___ / ___ / ___ (e) an.

DATA ETA SINADURA / *FECHA Y FIRMA*

EGUNA
*FECHA:*

SINADURA
*FIRMA:*

SARRERA ERREGISTROKO ZIGILUA / *SELLO REGISTRO DE ENTRADA*

RE. 04/123

## ARGIBIDEAK

Eredu hau esportatzaileen eta bestelako eragile ekonomikoen erregistroan eta erkidego barruko eragileen erregistroan alta edo baja eskatzeko da.

**IDENTIFIKAZIOA:** Itsatsi identifikazio etiketa horretarako dagoen gunean.

**ESPORTATZAILE ETA BESTELAKO ERAGILE EKONOMIKOEN ERREGISTROA.** Erregistro honen barruan egongo dira BEZren Arautegiaren 30. artikuluan araututako itzulketa prozedurari jarraitzeko eskubidea daukaten enpresari edo profesionalak.

**(01) GAKOA:** "X" batekin markatu behar da subjektu pasiboak EBko kide diren beste estatu batzuetarako ondasun emate salbuetsiak egiten baditu, BEZren Arauaren 25. artikuluan xedatutakoaren arabera.

**(02) GAKOA:** "X" batekin markatu behar da subjektu pasiboak honako hauek egiten dituenean: Kanarietarako, Ceuta edo Melillarako behin betiko esportazioak edo bildaketak, BEZaren Arauaren 21. artikuluan xedatutakoaren arabera, Arau horren 22. eta 64. artikuluetan aipatzen diren emateak eta zerbitzu prestazioak, edo Arauaren 23. eta 24. artikuluetan aipatzen diren eragiketa salbuetsiak.

**(03) GAKOA:** "X" batekin markatu behar da subjektu pasiboak honako hauek egiten dituenean: BEZren Arauaren 91. artikuluan, Bi.1 idatz-zatian, 1. zenbakian, a) eta f) bitarteko letretan aipatzen diren elikagai produktuen emateak; Arauaren 91. artikulua, Bi.1 idatz-zatia, 2. zenbakiaren barnean diren liburu, aldizkari eta kazeten emateak; 91. artikuluko Bat.1 idatz-zatian, 7. zenbakian eta Bi.1 idatz-zatiko 6. zenbakian aipatzen diren ondasun higiezinen emateak; eta Arauaren artikulu horretako Bat.3 idatz-zatian aipatzen diren obra-exekuzioak, baita Arauaren 91. artikulua, Bat.2 idatz-zatia, 7. zenbakiaren barnean diren zinema-aretoek egindako zerbitzu prestazioak ere.

**(04) GAKOA:** "X" batekin markatu behar da subjektu pasiboak honako hauek egiten dituenean: Arauaren 72. eta 73. artikuluetan xedatutakoa aplikatuz zerga honen pean ez dauden erkidego barruko ondasun garraioko eragiketak eta beren osagarrizko eragiketak; Arauaren 84. artikuluan, Bat idatz-zatian, 2. zenbakian, b) letran jasotzen den erregela aplikatzekoa zaien urre emateak; eta EBko kide diren beste estatu batzuetarako ondasun emate zergapetu gabeak, BEZaren Arauaren 68. artikuluko Lau idatz-zatian xedatutakoaren arabera.

**(05) GAKOA:** Lauki hau honako subjektu pasibo hauek bete beharko dute: azken urte naturalean aurreko idatz-zatietan azaltzen diren eragiketak 120.202,72 euro baino gehiagoko zenbateko osoarekin egin dituztenak, hileroko itzulketetarako eskubidea eduki nahi dutenean, hala badagokie.

**(06) GAKOA:** Lauki hau honako subjektu pasibo hauek bete beharko dute: aurreko urtean 120.202,72 euroko zenbatekoa gainditu ez eta, hala ere, dabilen urte naturalean eragiketen muga hori gainditu dutenak, hileroko itzulketetarako eskubidea eduki dutenean, hala badagokie.

**(07) eta (08) GAKOAK:** Gako hauetan, esportatzaileen eta bestelako eragile ekonomikoen erregistroan alta-edo, hala dagokionean, baja- emateko eskaera jasoko da, alta edo baja horren benetako data adierazita.

**ERKIDEGO BARRUKO ERAGILEEN ERREGISTROA**

Erregistro honen barruan egongo dira:

- ✶ BEZ-IFZ esleituta eduki eta zerga horren pean dauden ondasun erkidego barruko ondasun emate edo eskuraketak egin behar dituzten pertsona edo entitateak.
- ✶ Ondasun prestazioen hartzaileak izango diren BEZren subjektu pasiboak, baldin eta horien gauzatze lekua, zerga honen ondorioetarako, eskuratzaileak eragiketa egitean erabili duen IFZ esleitu dion Estatua zein den kontuan hartuz zehazten bada.
- ✶ BEZren Arauaren 14. artikuluan aipatzen diren pertsona edo entitateak, zerga horren pean dauden erkidego barruko ondasun eskuraketak egin behar dituztenean.

**(09) eta (10) GAKOAK** gako hauetan erkidego barruko eragile ekonomikoen erregistroan alta -edo, hala dagokionean, baja- emateko eskaera jasoko da, alta edo baja horren benetako data adierazita.

## INSTRUCCIONES

Este modelo permite solicitar el alta o la baja en el Registro de exportadores y otros operadores económicos y en el Registro de operadores intracomunitarios.

**IDENTIFICACIÓN**:Adhiera la etiqueta identificativa en el espacio reservado al efecto.

**REGISTRO DE EXPORTADORES Y OTROS OPERADORES ECONÓMICOS**: Formarán parte de este Registro los empresarios o profesionales que tengan derecho al procedimiento de devolución regulado en el artículo 30 del Reglamento del IVA.

**CLAVE (01):** Deberá señalarse con una "X", cuando el sujeto pasivo realice entregas exentas de bienes destinados a otros Estados miembros de la U.E., según lo dispuesto en el artículo 25 de la Norma del IVA.

**CLAVE (02):** Deberá señalarse con una "X" cuando el sujeto pasivo realice exportaciones o envíos con carácter definitivo a Canarias, Ceuta y Melilla según lo dispuesto en el artículo 21 de la Norma de IVA, entregas y prestaciones de servicios a que se refieren los artículos 22 y 64 de la Norma, así como las operaciones exentas mencionadas en los artículos 23 y 24 de dicha Norma.

**CLAVE (03):** Deberá señalarse con una "X" cuando el sujeto pasivo realice entregas de productos alimenticios a que se refiere el artículo 91, apartado Dos, 1, números 1º letras a) a f) de la Norma del IVA, de las entregas de los libros, periódicos y revistas comprendidos en el artículo 91, apartado Dos, 1, número 2º de la Norma, de las entregas de los inmuebles a que se refieren los apartados Uno, 1, número 7º y Dos, 1, número 6º del artículo 91, y de las ejecuciones de obra a que se refiere el apartado Uno, 3 del mismo artículo de la Norma, así como de las prestaciones de servicios realizadas por salas cinematográficas comprendidas en el artículo 91, apartado Uno, 2, número 7º de la Norma.

**CLAVE (04):** Deberá señalarse con una "X" cuando el sujeto pasivo realice operaciones de transporte intracomunitario de bienes y sus operaciones accesorias que no estén sujetas al Impuesto por aplicación de lo establecido en los artículos 72 y 73 de la Norma, entregas de oro a las que sea de aplicación la regla contenida en el artículo 84, apartado Uno, número 2º, letra b) de la Norma, así como entregas no sujetas de bienes destinados a otros Estados miembros de la U.E. en virtud de lo dispuesto en el artículo 68, apartado Cuatro de la Norma del IVA.

**CLAVE (05):** Deberán rellenar esta casilla los sujetos pasivos que durante el año natural inmediato anterior hubieran realizado las operaciones descritas en los apartados anteriores, por un importe global superior a 120.202,72 euros y deseen tener derecho, en su caso, a devoluciones mensuales.

**CLAVE (06):** Deberán rellenar esta casilla los sujetos pasivos que no habiendo superado durante el año inmediato anterior la cifra de 120.202,72 euros, sin embargo han superado durante el año natural en curso el mencionado límite de operaciones y deseen tener derecho, en su caso, a devoluciones mensuales.

**CLAVE (07) y (08):** En estas claves se consignará la solicitud de alta en el Registro de exportadores y otros operadores económicos o cuando proceda la baja en el mismo, haciendo constar la fecha efectiva de dicha alta o baja.

**REGISTRO DE OPERADORES INTRACOMUNITARIOS.-**

Formarán parte de este Registro:

- ✶ Las personas o entidades que tengan atribuido el NIF-IVA y vayan a efectuar entregas o adquisiciones intracomunitarias de bienes sujetas a dicho tributo.
- ✶ Los sujetos pasivos de IVA que vayan a ser destinatarios de prestaciones de servicios cuyo lugar de realización a efectos del mismo se determine en función de cuál sea el Estado que haya atribuido al adquirente el NIF con el que haya realizado la operación.
- ✶ Las personas o entidades a que se refiere el artículo 14 de la Norma del IVA cuando vayan a realizar adquisiciones intracomunitarias de bienes sujetas a dicho Impuesto.

**CLAVES (09) y (10):** En estas claves se consignará la solicitud de alta o en su caso baja del Registro de operadores intracomunitarios, haciendo constar la fecha efectiva de dicha alta o baja.